

GARI KASPAROV ① MAISU HANDIA

# «Dena ez da matematika, sormenak badu lekua xakean»

Dena irabazi duen arren, edozein lehiaketa berri desafioa dela dio, eta noizbait grina galtzen badu utzi egingo duela.

JOSU TORNAY - IRUÑEA

Ostegun gauean heldu zen Kasparov Iruñera. Prentsaurrekoan oso lasai agertu zen eta gogoz erantzun zituen galdera guztiak. Prentsaurrekoan ingelesez mintzatu zen Kasparov, baina garbi zegoen erdaraz ere nahiko ondo ulertzen duela, eta itzultzailea —orokorrean nahiko desorekatuta egon zen— behin baino gehiagotan zuzendu zuen. Inork ez zion galdetu Errusiako egotzari buruz, eta FIDERi buruzko galderak eta munduko txapelketaren banaketari buruzkoak izan ziren gehienak «Ni soilik jokalaria bat naiz, eta ez daukat eraginik horrelako gaietan», azaldu zuen. Prentsaurrekoaren ondoren BERRIAREkin geratu zen hizketan, errusieraz egindako elkarrizketa batean. Haren arreta bereganatu zuen kazetaria errusieraz entzuteak. Harrituta agertu zen, eta Eusko Jaurlaritzaren asmoarekin, xakea kirol arlotik ateratzeara, soilik «adimen urri batena» izan daitekeela esan zuen. **Ordenagailuek xakearekin bukatuko dute?**

Xakea matematikoki infinitua da. Mugimendu posibleak Unibertsoaren hasieratik pasatu diren segundoak baino gehiago dira kalkulatzen da. Horregatik, matematika ez da dena xakean, sena eta zentzuduna izatea, oso garrantzitsuak dira. Gaur egun ia jokalaria guztiak euren partidak ordenagailuekin prestatzen dituzte; Internetez Australian jokatutako partida bat berehala ezagutzen da, adibidez, hemen; informazio kopurua benetan handia da, eta hala ere, egunero mugimendu berriak asmatzen dira. Sormenak badu lekua xakean.

**Non dago atsegin handiena: makinaren kontra ala pertsonaren kontra jokatzean?**

Ezin da konparatu. Futbola hondartzan eta belarrezko zelai batean ere ez da berdina, eta ezin dira konparatu. Ez da bat bestea baino atseginagoa, ezberdinak baizik. Prestakuntza ere ezberdina da, ordenagailuak ez baitu

kalkulu akatsik egiten, baina gizakiak bai. Beste akats mota batzuk egiten ditu makinak. Gizakiaren kontra horrelako akats bat egin ondoren aurkariak mesedea itzul diezazuke, baina ordenagailuak ez. Ordenagailuarekin presioa handiagoa da.

**Xake jokalaria gisa lortu duzun guztiarekin desafioren bat geratzen al zaizu?**


Bai, lehiaketa bakoitza desafio bat da. Niri dagoeneko berdin zait lehiaketa ofiziala edo ez ofiziala izatea: denak dira garrantzitsuak. Nik zortzi aldiz irabazi dut Linaresen, baina berriro jokatuz gero, berriro gurako dut irabaztea. Desafio berririk ez duzun eguna iristen bada, hori da uzteko unea. Ni beti xakean gogoz eta gartsu aritu naiz, eta oso desafio ezberdinak dauzkat aurrean oraindik. Horien artean oso garrantzitsuak dira niretzat bereziki bi: xakea hezkuntza sisteman sartuta ikustea eta nire lana *My great predecessors* bukatzea. Plan asko dauzkat oraindik.

**Gaur egun gazteriak afizio errazak bilatzen ditu. Horrelako joko intelektualak badauka toki bat egungo gazteriarengan?**

Nik uste dut eskaintzaren eragina dela, eta ez ohiturarena. Gaur egun eskaintza zabalagoa da, eta beraz, gauza ezberdinoak egiten dira. Adibidez, SESBn garaian eskaintza oso estua zen: ez ziren politika, negozioak edo ekonomia existitzen eta afizioak oso mugatuak ziren. Horregatik ez da arraroa SESBn hainbeste xakelari on irteeta. Gainera, Gobernua bultzatzen zuen. Egungo gazteriarik buruz berba egiten badugu, asko praktikatzen da xakea. Adibidez gisa, AEBetan

## PROIEKTUAK

«Xakea hezkuntzan sartuta ikustea eta nire liburua bukatzea dira nire hurrengo desafioak»



JAGOBA MANTEROLA / ARGIA

12.000 eskoletan xakea sartua dago hezkuntza sisteman. Dena da bultzatzea, eta adibide onak edukitzea. Alemanian, Becker agertu baino lehenago, tenislari gutxi zegoen, baina bere ereduarekin asko sortu ziren. Saskibaloiarako adibidez badaude bekak Estatu Batuetan, baina xakerako ez. Espainian guraso askok gurako lukete euren semeak futbolariak edo txirrindulariak izatea. Baina xakearekin horrelakorik ez dago, eta hori da arazoa, ez gazterien ohiturak.

**Zergatik uste duzu xakea eskoletan sartu beharko litzatekeela?**

Xakeak, zalantza barik, beste ikasgaietan laguntzen du; frogatuta dago xakeak umeei eskolan lagundu egiten diela. Gainera merkea da, eta edozein hezkuntza sisteman ezar daiteke. Inter-

netek ere horretan laguntzen du. Gainera, xakeak jendea berdintzen du: arrazak, gizarte-mailak, erlijioak eta sexuak ez daukate zerikusirik. Denak berdinak gara taularen aurrean. Ideiak pixkanaka forma hartzen du; baina poliki doa.

**Ez duzu uste munduko txapelketa bateratu beharko litzatekeela?**

Hori ideia bikaina da, baina ni soilik jokalaria bat naiz, eta ez daukat eraginik horrelako gaietan. Hori prozesu politikoa da.

**Eusko Jaurlaritza xakea kirol arlotik ateratzen saiatu da. Egindako presioarekin azkenean atzera egin dute, baina hala ere ez dute onartzen xakea kirola dela. Zer uste duzu zuk?**

Horrelako ideia batek adimen urri batena izan behar du. Ez dut nahi nire hitzekin haserrikerik sortzea Eusko Jaurlaritzan, baina kirolestatik xakea ateratzea kontrara da. XXI. mendean gaude, eta kirolaren definizioa egun oso aldatuta dago. Kirola ez da kontaktu fisikoa bakarrik. Hala ere, nire prestakuntza fisikoarekin ziur nago gimnasio batean munduko golf jokalaria onenak gaindituko nituzkeela. Orduan zer, golfa ere ez da kirola? Xakea kirol arlotik

kanpo uzteko ausartak badu golfa edo beste batzuk kanpo uzteko ere ausartak izan dira? Curlinga kirola al da? de asko aritzen da xakean, erol bezala sentitzen dute. agintariak jendeari lagund har diote, eta ez horrelako rrizko eztabaidak sortu.

**Xakeak olimpiar kirola izan beharko al luke?**

Idea ez da txarra, baina hori ez da soluzio bat xakearen Kirolak ez dira handiak Olimpiar Jokoen egoteagatik; hori da, eta horregatik daude. etan. Xakeak bere izena egin har du.

**Zein izan da zure ustez munduko kirolarik onena?**

Hori esatea lar subjektiboa da, go litzateke. Zein izan da munduko kirolarik onena: Einstein Newton? Nork daki? Jokalaria handiek eman dutena neuzaila da eta bakoitzaren gaitasun aukeratu du. Idazten duen neutrala izaten saiatzen da. *My great predecessors* liburua ordu asko sartzen ari naiz, nire betebeharrak dela ustea beste garai batzuetako xake onenaren ordezkaria izatea eta eren oportazioak zabaltzea.

## EUSKO JAURLARITZA

«Xakea kirola ez dela esatea adimen urria duen norbaiten adierazpena baino ezin daiteke izan»